



PAZIENTEENTZAKO INFORMAZIOA, MITOMIZINA/GEMZITABINA DUEN MASKURI BARNEKO INSTILAZIOA EGIN OSTEOA

KONTUAN HARTU BEHARREKO NEURRIAK:

- Tentsio arterial edo diuretikorako tratamenduren bat hartzen baduzu, tratamenduaren ondoren hartu beharko da.
- Tratamenduaren ondoren, txiza egin ostean, eskuak eta genitalak garbitu behar dira, medikamentuak kontrako erreakziorik izan ez dezan.
- Instilazioaren ondorengo bi egunetan eserita egingo duzu txiza. Tira bi aldiz komuneko ponpari.
- Instilazioaren ondorengo 1. astean sexu-harremanak saihestu, eta, sexu-harremanak izateko, preserbatiboa erabili beharko zenuke.
- Edan ur asko tratamenduaren egunean.

TRATAMENDUAREN ONDORIO KALTEGARRI POSIBLEAK:

- Normala da tratamenduaren ondorengo orduetan gorritasuna edo pixa egitean eragozpenen bat izatea (ohiko edozein analgesiko har dezakezu, paracetamola edo ibuprofenoa 8 orduan behin), normalean baino gehiagotan pixa egitea, edo odol pixka bat pixa egitea. Sintoma horiek 24 ordu baino gehiago irauten badute, jarri harremanetan urologiako kontsultakoekin.
- Sukarra izan dezakezu tratamendua egin ondorengo 24-48 orduetan; antipiretiko bat har dezake (adibidez: paracetamola). Ospitaleko larrialdi-zerbitzura joan behar duzu sukarra 48 ordu baino gehiago luzatzen bada edo egoera orokorrak okerrera egiten badu.
- Esku ahurretan eta genitalen eremuan azkura izan dezakezu; hala gertatzen bada, urologiako kontsultako erizain taldearekin harremanetan jarri.